



12.03.28AN UDALBATZAK EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK:

Ramón Ajuria Uranga
Lierni Altuna Ugarte andrea
Ane Miren Echebarria Mendizabal andrea
Miren Edurne Uribarren-Iturrieta Larrañaga andrea
Andoni Solupe Amozarrain

José Ramón Uribe Uriarte jauna
Martín Damián Echave Echevarria jauna

Iñaki Nafarrate Kortabarría jauna

EZ BERTARATUAK:

Idoia Beitia Izurrategi andrea

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hamabiko martxoaren 28an, arratsaldeko zazpiak (19:00) direnean, goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, lehenengo deialdian, Ramón Ajuria alkatearen lehendakaritzapean eta Itxaso Trigueros idazkariaren laguntzarekin. Alkateak, quorum dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:

1.- 13.02.23ko EZ OHIKO ETA 12.02.29KO OHIKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

2012ko otsailaren 23an eta 29an Udalbatzak eginiko bilkuren akten zirriborroari buruz korporazio-kideren batek esatekorik duen galdetu du alkate jaunak.

Nafarrate jaunak azaldu du aurreko bilkuran (12.02.29) aztertu ziren kontaketa aktetako batean zifra bat ez datorrela bat aurreko aldiko aktan azaldutakoarekin. Honi buruz azaldu zaio aurreko bilkuran bertan hori bera azaldu zela eta, aztertu ondoren, ontzat eman zela.

Besterik aipatu ez denez, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio eta, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin, ondorengoa ERABAKI DU:

2012ko otsailaren 23ko ez ohiko eta otsailaren 29ko ohiko bilkuren aktak onartzea.

OGASUNA

2. 42/12 AUZI-ERREKURTSOAN UDALAREN DEFENTSARAKO ALKATEAK EGINDAKO EBAZPENA JAKINERA EMATEA ETA BERRESTEA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak udalaren kontra jarritako 42/12 auzi-errekurtsuaren nondik norakoak azaldu ditu. Horren harira, deialdiarekin batera banatutako 37/12 Alkatetzaren Dekretuaren bidez hartutako erabakiak berrestea eskatu dio Udalbatzari, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21, 22 eta 68.1 artikuluek eta baterakor aginduek aurreikusten dutenari jarraiki.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Udalbatzak bozketari ekin dio eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin hurrengoa ERABAKI DA:



Lehenengoa.- 42/12 Auzi-Errekurtsioan, Udalaren defentsarako Alkateak 37/12 Dekretuaren bidez hartutako erabakiak berrestea.

3. ALKATEAK EGINDAKO DELEGAZIOEN BERRI EMATEA

Alkateak era laburrean azaldu aurreko bilkuratik hona egin duen delegazio bakarra: Alkateak 2. Alkateordea eskuordetu zuen martxoaren 23an bere funtzio guztietan ordezkatzeko, egun horretan ezin egonagatik eta 38/12 Dekretuan jaso dena.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

4. ETXAGUENGO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAN ALKATEAK EGINDAKO EBAZPENAREN BERRI EMATEA.

Alkateak azaldu 2012ko otsailaren 23an egindako ezohiko bilkuran Udalbatzak erabaki zuela *Etxaguen auzoko hiri-azpiegiturak eraberritzeko lanen* kontratua esleitzeko, sinatzeko eta honen inguruan sor daitezkeen inguruabarrei irtenbidea bilatzeko eskumena alkatearengan delegatzea. Baita ere, obra hasi ondoren sor daitezkeen arazoei aurre egiteko eskumena.

Eskuordetze horri jarraiki, Alkateak, beharrezkoak diren izapideak egin eta gero, 30/12 Dekretu bidez aipatu kontratua esleitu du. Esleipenaren datu orokorrak hauxe dira:

Esleipenduna: OPACUA, S.A.
Zenbatekoa: 755.033,35 € (639.858,77 + B.E.Z.)
Gauzatzeko epea: 8 hilabete
Obraren Bermea: 1 (derrigorrezkoa) + 5 urte.

Udalbatzak jakinaren gainean geratu da.

5. 2011KO ABENDUKO KONTAKETA AKTAREN BERRI EMATEA.

Zinegotzi jaun andreei 2011ko abenduko kontaketa aktaren berri eman zaie, dagozkien frogagiri eta kontziliazioarekin, hala balegokio. Aktaren emaitzak, laburrean, hauexek dira:

2011/12/01 – 31 ARTEKO KONTAKETA AKTA

<i>Existencia anterior al periodo</i>	555.213,93 €
<i>INGRESOS</i>	3.590.728,59 €
<i>AJUSTES</i>	-102.791,50 €
<i>INGRESOS LÍQUIDOS</i>	3.487.937,09 €
<i>PAGOS</i>	3.606.321,02 €
<i>AJUSTES</i>	-102.791,50 €
<i>PAGOS LÍQUIDOS</i>	3.503.529,52 €
<i>Existencias a fin de periodo</i>	539.621,50 €

**Ez dago kontziliazioaren beharrik*

Bertaratutako zinegotzi jaun-andreek, kontaketa akta azertu eta ontzat eman dute, aho batez onartuz.



6. 24/12 – 39/12 ZENBAKIEN ARTEKO ALKATEAK EGINDAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Gainontzeko korporazio-kideen jakinerako, Alkatetzak 24/12tik 39/12 zenbakira eman dituen Dekretuak banatu dira bilkura-deialdiarekin. Oraingoan, horien berri eta azalpenak eman ditu era laburrean. Alkateak, korporazio kideren batek galdetzekorik duen galdetu du.

Nafarrate jaunak Aguazilaren hautaketa prozesuaren inguruan adierazi du epaimahaia izendatzerakoan ez dela politikorik agertzen.

Honi erantzun dio Alkateak politikoak ezin direla epaimahaian egon. Idazkariari galdetu dio eta honek berretsi du.

Inork ez duenez beste galderarik egin, hurrengo puntura igaro da.

7. MOZIOAK (7/1985 Legeko 46.2.e) artikulukoak)

7.1 BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKOAK: APURKETA HIDRAULIKOA IKERTZEKO

BILDU udal taldeko ordezkariak hurrengo mozioa aurkeztu du:

Arabako hidrokarburoak bilatzeko saiakera anitz egon izan dira. Gure lurraldeak eta hidrokarburoak aurkitu izan diren beste batzuekin dituen antzekotasunak direla eta, petrolio-konpainientzat desiragarri bilakatu dute Araba. Eraitza ezberdinak egonda kasuan kasu, urte askotan zehar egon diren hamarnaka saiakerek arrakasta eskasa izan dute.

Hala ere, gasa metodo berrien bidez bilatzeko munduan zehar dagoen bolada berri baten ondorioz, berriz ere gure lurraldea lehentasunezko eremua da. Ezberdintasuna, kasu honetan, zulaketa horizontala eta etapa anitzen bidezko apurketa hidraulikoaren arteko konbinazioan datza, beste leku askotan ez ohiko gasaren ustiatzea uzteaz egingarri bilakatu dutena.

Eusko Jaurlaritzak sistema honen aldeko apustua egiten du, horren frogarria nabariena, SHESA, %100an diru publikoko enpresak, gure lurraldean eman diren hidrokarburoen ikerketa baimenen bultzatzailea izatea da. Ez da interesa duen enpresa bakarra, baina bai bere baimenekin lurralde eremu handiena hartzen duena.

Programa hau 2005ean hasi zen, hainbat baimenen eskaerarekin, horietako lehena 2006an eman zelarik. Enara bezala deitutako baimena ezagunena bada ere, 2012ko otsailean Arabako lurraldean emandako bederatzi baimenen daude, bai eta eskatuta eta emateko tramitean dauden beste hiru ere. Baimen guzti hauen lurraldeen batuketara Arabako udalerrira guztien gainean eragina uzten du.

Egungo egoera putzu askoren ustiatze baimena jada eskatu dela eta horietako batzuk, Gasteizko Udalerriko Subilanan dagoen Enara-1 kasu, udal lizentzia baino ez zaio falta zulatzen hasteko.

Plan hauen beste aldean, Fracking bidez ezagutzen den teknika hauek hainbat ikuspegitik oso erantzunak izaten ari direla ikusten dugu. Orain arte teknika hauek erabili diren zonaldeetan hainbat arazo sortu dira, esate baterako, edateko uraren kutsadura, mugimendu sismikoen agerpena, inguruaren okupazio altua eta honen hondatzea edota putzuen inguruan bizi diren biztanleengan osasun arazoak.

Bultzatzen duten enpresek eragina jasandakoei indemnitazioak banatu dizkiete, arau-hausteak direla eta isunak ordaindu edota zisternek bidez ura kutsatu duten zonaldeetara ur edangarria eraman.



Hainbat dokumentuk kezka guzti hauek bermatzen dituzte, Osasunean eta Ingurumenean frakingaren ondorio ezak kolokan jartzen dituzten ikerketa zientifikoak edota haien lurraldeetan teknika hauek debekatzen duten estatuak, Frantzia kasu, lege bidez apurketa hidraulikoa debekatu duena. Nabarmena da egun teknika honen inguruan eztabaida handia dagoela bere arriskuak direla eta.

Teknika honek sortu dituen arazoak direla eta, eta hauek udalerrri honetan egoteko prebentzioan, mozio honen helburua udalerrri honen mugen barruan teknika hau aurrera eramatea galaraztea da.

Honen guztiagatik, Udalbatza honetara aurkeztzen diogu akordio proposamen hau eztabaidatu eta onartua izan dadin:

1. Aramaioko Udalak SHESAK (Euskadiko Hidrokarburuak) duen Hidrokarburu Ikerketa Baimena bertan behera geratzea eskatzea.
- 2.- Fracking-aren aurkako iritzia dela eta, Aramaioko Udalak jarrera aktiboa har dezan "Frackingetik aske dagoen Udalerrri" izendatuz eta, ondorioz, "Fracking ez" seinalea udalerrri sarreran jarri.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Udalbatzak bozketari ekin dio eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin mozioa onartu da

7.2 EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKOAK: UDALEI DAGOZKIEN ETA OPOR FISKALETATIK JASOTAKO KANTITATEEN INGURUAN

EAJ/PNV udal taldeko ordezkariak hurrengo mozioa aurkeztu du:

Udalei dagozkien, eta opor fiskaletatik jasotako kantitateen inguruan, Aramaioko EAJ-PNV Udal Taldeak aurkeztutako mozioa plenoan eztabaidatua izan dadin

Arabako Foru Aldundiak, Europar Batzordeak egindako eskaeraren arabera, enpresei emandako "opor fiskalak" izendatutako diru kopuruaren kobrua egin du. Enpresek itzulitako kantitateak behin jaso eta gero, Aldundiak "banaketara egokitutako diru-sarrerak"-tzat jo ditu, bestelako gehigarririk zehaztu gabe. Kontsiderazio hau kontutan hartuta, Eusko Gobernuari dagokion diru-kopurua banatu zaio, baina Arabako Udalekin ez dute gauza bera egin.

Zerga-bilketaren beherakada pairatuko duten Arabako Toki Erakundearen egoera ekonomikoa kontuan hartuta, Aramaioko Udal Plenoak Arabako Batzar Nagusiek onartutako ondorengo testua sinatzen dute:

1. Arabako Foru Aldundiak, Ekarpenen Legearekin eta "arriskukidetasun" irizpideekin bat etorritik, gaur egun arte "Estatu laguntzak" izenarekin, eta 2011ko urriaren 14an Finantza Kontseiluak banaketara egokitutako diru-sarrerak direla erabaki ondoren, batutakoa Toki Erakundearen artean banatuko du.
2. Toki Administrazioiko Sailak, ohiz kanpoko moduan, 2013ko aurrekontuan "Toki Erakundeak Finantzatzeko ez ohiko gehigarria" izena duen kontu-saila esleitu du, non aurretik aipatutako kopuru ekonomikoa barneratzen de, eta Toki Erakundearen



Finantzaziorako Foru Fondoak ezartzen dituen egungo arauen arabera, ordainduak izan 2013ko urtarrilean kontzeptu honekin egingo den lehen ordainarekin batera edo zorraren konpentsazioaren bitartez. Edozein kasutan ere, ez ohiko gehigarri honek ez du Toki Erakundeen gainontzeko finantziazioaren gutxitzea ekarriko.

Aurrekontuen luzapena izatekotan, 2013 urteko lehen Diputatu Kontseiluan aurrekontua aldatuko da, honela mozio honen bigarren puntu hau bete dadin.

3. *Mozio hau Arabako Lurraldeko Finantza Kontseilura bidaliko da.*

Jarraian, eztabaida sortu ez denez Udaltzako bozketari ekin dio eta hurrengo emaitzekin mozioa onartu da:

5 Abstentzio (Bildu udal taldeko zinegotziak)

3 aldeko boto

7.3. BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKOAK: BATERAGUNE AUZIAREN INGURUKOAK

Bilkura hasi aurretik, BILDU udal taldeko ordezkariak hurrengo mozioa aurkeztu du:

BATERAGUNE AUZIAREN AURREAN

Datorren martxoaren 28an, Auzitegi Gorenak Bateragune auziaren helegitea aztertuko du Madrilan. Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto hamar eta zortzi urtetako kartzela zigorrera kondenatu zituen Entzutegi Nazionalak ETAkoak izatearen akusaziopean.

Euskal Herrian aldaketa politiko sakonak bizi izan ditugu azken hilabeteetan. Hamarkadak iraun dituen ziklo armatua atzean utzi eta bide politiko eta demokratikoetan sakonduz etorkizun aske bat eraikitzea da herri honek desio eta erabaki duena. Atzeraezina den bide hori abian da.

Garai berri hauek abia arazten, zuzeneko inplikazioa izan zuten gaur egunean kartzelan dauden bost kide hauek. Herri hau, demokrazia eta bakea garatuz eta herritarren borondatea oinarritzat hartuz, eraiki behar dela aldarrikatzea da beraien jardueraren xedea. Lan politikoa egiteagatik izan ziren atxilotuak, ziklo aldaketa ekarri duen lan politikoari ekiteagatik hain zuzen ere.

Ez Euskal Herritarren gehiengoak, ez eta nazioarteko iritzi publikoak ere, ez du ulertzen eta onartzen, Bateragune auzian kondenatutako bost Euskal Herritar hauek kartzelan izaterik. Ez du onartzen, sortu den egoera berri honen aurrean, espainiar estatuak urrats positiborik eman gabe gelditzerik

Hau guztia kontutan izanik, honako erabaki hau hartzen da:

Udal honek, herritarren gehiengoaren eskaera kontutan hartuz, Bateragune auzian Entzutegi Nazionalak emandako ebazpena bertan behera utzi eta Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacinto aske uzteko eskaria egiten du.

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Udaltzako bozketari ekin dio eta hurrengo emaitzekin mozioa onartu da:

7 aldeko boto

Abstentzio 1 (EAJ/PNV udal taldeko zinegotzia)



Eskaerak eta Galderak puntura igaro baino lehen, Alkateak galdetu du ea Talde Politikoren batek premiazko gairen bat aurkeztu nahi duen, 2568/1986 ErregeDekretuaren 91.4 atalaren babespean.

Aramaioko Alkartasuna udal taldeko ordezkariak (Zerbitzu Batzordeburuak) hurrengo puntua aurkeztu du, Zerbitzu Batzordeak jada informatu duena baina udalbatzarako deialdia jada egina zegoenean eginiko bilkuran: UDAL JABETZAKO HAINBAT ONDASUN GARBITZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUARI DAGOKION KONTRATUAN SINATU ZEN PREZIOAREN EGUNERATZEA ETA LUZATZEA.

Ordezkariak erabaki honen premia azaldu du, kontratuaren epemuga jada bete delako eta kontratu honen gauzatzearekin ezinbestekoa delako udal funtzionamendu egokia bermatzeko.

Jarraian, Udalbatzak aho batez onartu du gai hau jorratzea eta 2568/1986 Errege Dekretuko 93. Atalak xedatu moduan ekin zaio.

10. UDAL JABETZAKO HAINBAT ONDASUN GARBITZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUARI DAGOKION KONTRATUAN SINATU ZEN PREZIOAREN EGUNERATZEA ETA LUZATZEA.

Ordezkariak batzordeak igorritako txostena irakurri du:

Udal jabetzako hainbat ondasun garbitzeko eta mantentzeko zerbitzua, GURBISA SERVICIOS AUXILIARES, S.L. enpresari 2010eko abenduaren 29an esleitu zitzaiola kontuan edukiz eta kontratua 2010eko abenduaren 30an sinatu zela ikusirik, urtebeteko epealdia pasatu dela kontuan hartuz, kontratuaren prezioak errebisatzea eta iraupena beste urtebetez luzatzea proposatzen zaio Udalbatzari.

Sektore Publikoko kontratuen legeak esaten duena kontuan hartuz, igoera gehienez ere KPI ofizialaren %85 baino handiagoa ezin da izan eta eguneratzea, kontratuaren esleipen egunetik prezioa errebisatzen den egunera arte izango da, 2010eko abendutik 2012ko urtarrila arte.

INE estatistika institutuak jasotako KPIaren eguneratzeak kontsultatuta, ikusi da 2010eko abendutik 2010ko urtarrilera %1,3-ko igoera izan duela.

Zerbitzu Batzordeak ondorengo proposamena egiten du:

Lehenengoa.- Aipatutako kontratua urtebetez luzatzea

Bigarrena.- KPIaren igoera %1,105an finkatzea

Hirugarrena.- 854,05 euroko gastua baimentzea.

Laugarrena.- Jasotzen den igoera atzera-eraginez aplikatzea (2012ko urtarrilak 2tik aurrera).

Jarraian, eztabaida sortu ez denez, Udalbatzak bozketari ekin dio eta aho batez ondorengo ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal jabetzako hainbat ondasun garbitzeko eta mantentzeko zerbitzuko kontratua, GURBISA SERVICIOS AUXILIARES, S.L. enpresak kudeatzen duena, urte bete luzatzea.

Bigarrena.- KPIaren igoera %1,105an finkatzea eta hasieran onartutako prezioari aplikatzea. Igoera honek atzeraeraginezko ondorioak izango ditu 2012ko urtarrilaren 2tik hasita.

Hirugarrena.- Aurrekoaren xedeetarako, 854,05 euroko gastua baimentzea.

Laugarrena.- Erabaki hau GURBISA SERVICIOS AUXILIARES, S.L. enpresari jakinaraztea.

11. ESKARIAK ETA GALDERAK

Eskariak edota galderarik duten galdetu die Alkateak gainontzeko korporazio kideei.

Nafarrate jaunak hitza hartu du eta ondorengo adierazi du:



- Azkeneko kultura batzordeko deialdian akats bat egon zen, adierazitako egunean eta orduan azaldu baitzen eta ez zen inor agertu. Nahasketaren bat egongo zen deialdia egin zen eguna eta bilkura egin behar zen egunekin.

Kultura batzordeburuak esan du ez zekiela eta jakinaren gainean geratu da.

- Martin Echabe zinegotziaren ama hil zela-eta, korporaziotik doluminak eman beharko litzaioke ofizialki.

Alkateak baietz esan dio eta udaletxetik jada lore-sorta bat bidali dela.

- Herriko Plazan dauden piboteak kentzea proposatu du.

Zinegotzi bakoitzak bere iritzia azaldu du, kontrako iritzia azaldu direlarik.

- Duela denboraldi bat liburu bat atera zen "SALESANDARRAK" izenekoa, Aramaioren inguruan hitz egiten duena, eta ale bat eskuratzea interesgarria izango zen.
- Mainer Unda 13. aldiz lortu du brontzezko domina Espainiako txapelketan. Idatziren bat bidali beharko zen ezta?

Alkateak esan dio dagoeneko bidalita dagoela.

- Euskal Foruen Hitzaldiari buruz (Andres Urrutiak egindakoa) liburuxka bat ateratzea interesgarria litzateke, horren asmorik ba al dago?

Alkateak esan dio forulege.com web orrian esteka bat dago eta bertan informazio guztia aurki daitekela baina horrez gain hitzaldi horren "2. Parte" bat egiteko asmoa dagoela.

- Parkean, eskola alboan ura pilatzen da eta lurrintzen denean oso irristakor egoten da (lokatsa dela eta).

Korporazioa jakinaren gainean geratu da.

- Gaztetxearen ataria (kanpoko aldea) oso zikina dago.

Korporazioa jakinaren gainean geratu da.

- Nitro izeneko telebista katea ikusteko Jaurlaritzako enpresa publikoari (hori kudeatzen duena) eskaera egitea eskatu du.

Zenbaitek jada ikusten dutela esan dute gainontzeko zinegotzietan.

Honekin eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, iluntzeko 19:50ak direnean, alkate jaunaren sinadurarekin hemen jasotzen den bilkurari amaiera eman diogu.